



2020

etxeparesaria.eus



Sandra Garayoa Cotera eta
Itziar Otegi Aranburu egileek irabazi dute
2020ko Etxepare saria
LORERIK GORRIENA albumarekin

Sandra Garayoa Cotera e
Itziar Otegi Aranburu han ganado el
premio Etxepare 2020
con el álbum **LORERIK GORRIENA**

Etxepare sarian **35** lan aurkeztu dira, inoizko ediziorik emankorrena.

A esta edición se han presentado **35** obras, la más fructífera hasta ahora.

Lan irabazlea: LORERIK GORRIENA albumak gutako bakoitzaren bizitzan Gertakari Handiek duten zama nabarmentzen digu, norberaren beldurrek, edo bertzeengandik jasotzen ditugunak, zenbateraino kateatzen gaituzten galdetuz. Ipuin tradizionalen ildotik, Txano Gorritxoren alaba dugu ardatz eta protagonista, eta berak erabaki beharko du etxean geratu edo oihanean barneratu, historia errepikatu edo berritu, eta, jakina, oihanean basapiztia ezaguna dauka zain, lerre jario...

Obra premiada: El álbum **LORERIK GORRIENA** nos resalta la carga que tienen en la vida de cada uno de nosotros los Grandes Sucesos, preguntándonos hasta qué punto nos encadenan los miedos propios, o los que recibimos de los suyos. En la línea de los cuentos tradicionales, la hija de Caperucita Roja es la protagonista y será ella la que decida si se queda en casa o se adentra en la selva, repite o renueva la historia y, por supuesto, en la selva le espera la conocida fiera, babeante...

Epaimahaia:

Leire Salaberria (ilustratzailea)
Idoia Sobrino (liburuzaina)
Patxi Zubizarreta (idazlea)

Jurado:

Leire Salaberria (ilustradora)
Idoia Sobrino (bibliotecaria)
Patxi Zubizarreta (escritor)

Epaimahaikideek azpimarratutakoa:

- ✓ Ipuin tradizionalen onena jaso, eta gaur eguneraino dakar haien leinua. Chestertonen erranetan, herensugea edo basapiztia gutako bakoitzarengan dago eta literaturak haren kontra borrokatzeko zalduna eskaintzen digu. Hau izan daiteke bitartekari batek umeari ipuina kontatzerakoan erakusten ahal dion gauzarik garrantzitsuena. Edo agian bitartekariak berak (dela guraso, irakasle, izeba edo aitatxi), jasoko duen irakaspenik handiena.
- ✓ Testua sotil eta argi idatzia dago, zentzu guztietan neurritsu, eta bikain uztartuta dago ilustrazio gorri-beltzekin: protagonistak eta haien neurriak, naturaren presentzia delikatuak, dena sinbolismo eta sujerentzia handiz adierazia.
- ✓ Indar handiko irudiak sortu ditu gama kromatikoko oso neurtu batekin. Gorriak eta beltzek pisu izugarria dute kontakizunean eta ipuin tradizionalarekin

Aspectos que ha subrayado el jurado: (Texto traducido)

- ✓ Recoge lo mejor de los cuentos tradicionales y trae su linaje hasta nuestros días. En las palabras de Chesterton, el dragón o la fiera está en cada uno de nosotros y la literatura nos ofrece un caballero para luchar contra ella. Esto puede ser lo más importante que una persona mediadora puede mostrar al niño o niña a la hora de contarle el cuento. O quizá la mayor enseñanza que reciba el propio mediador o mediadora (ya sean padres/madres, profesorado, tías/tíos o amatxi/aitatxi).
- ✓ El texto está sutil y claramente escrito, moderado en todos los sentidos, y está perfectamente combinado con ilustraciones rojizas y negras: los protagonistas y sus dimensiones, la delicada presencia de la naturaleza, todo expresado con gran simbolismo y sugerencia.
- ✓ Ha creado imágenes de gran fuerza con una gama cromática muy medida. Rojos y negros tienen un



2020



etxeparesaria.eus

lotzeaz gain irakurlearen emozioak ukitzeko gai da lehen begirada batekin. Testura eta trazuekin jolastu du, deskripzioetatik urrunduz, eta simbolismo eta sujerentziaz betetako mundu propio bat azalduz.

peso enorme en el relato y además de relacionarse con el cuento tradicional es capaz de tocar las emociones del lector con una primera mirada. Ha jugado con texturas y trazos, alejándose de las descripciones, y explicando un mundo propio lleno de simbolismo y sugerencia.

Saria: Sari bakarra eman da, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan.

Premio: Se ha concedido un único premio de 5.000 €, como adelanto de derechos de autoría.

Argitalpena: Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du, euskaraz, 2020ko udazkenean.

Publicación: La obra premiada lo publicará la editorial navarra Pamiela, en euskera, en otoño de 2020.

Saridunei buruzko informazioa:


Iruñeko Udalak, Etxepare saria programan barne, antolatzen duen Biko-Teka topaketetan hartu dute parte saridun biek; batak idazle moduan (Itziar Otegi) eta besteak ilustratzaile lanetan (Sandra Garayoa).

Información sobre los autores de la obra:

Las dos personas premiadas han participado en los encuentros Biko-Teka del Ayuntamiento de Pamplona, dentro del programa Etxepare saria; Itziar Otegi como escritora y Sandra Garayoa como ilustradora.

[Sandra Garayoaren biografia eta argitalpenak:](#)

[Sandra Garayoa, biografía y publicaciones:](#)



Sandra Garayoa Cotera (Donostia, 1993), diseinu grafikoan eta ilustrazioan graduatua da Bartzelonako Escola Massanan. Hainbat eremutan lan egin ondoren, azkenaldian narrazioaren alorrera bideratu da. Une honetan, hainbat album ilustraturen proiektuetan murgilduta dabil.

Sandra Garayoa Cotera (San Sebastián, 1993) es graduada en diseño gráfico e ilustración por la Escola Massana de Barcelona. Tras trabajar en diferentes campos, últimamente se ha orientado hacia el campo de la narración. En estos momentos, está inmersa en proyectos de varios álbumes ilustrados.

2017an irabazle izan zen Eva Toldrá ilustrazio sarien kategoría orokorrean, eta 2018an, berriz, finalista izan zen Junceda sarien sortzaile berrien kategorian.

En 2017 fue ganadora en la categoría general de los premios Eva Toldrá de ilustración y en 2018 fue finalista en la categoría de nuevos creadores de los premios Junceda.

<https://sandragarayoa.com/>

<https://sandragarayoa.com/>



2020

etxeparesaria.eus



Itziar Otegiaren biografia eta argitaratutako lanak:

Itziar Otegi, biografía y trabajos publicados:



Itziar Otegi Aranburu (Oiartzun, 1972) itzultzaile-interpretea da lanbidez. Hainbat literatura-lan itzuli ditu helduentzat eta haurrentzat. Besteak beste, *Axenario* (Jules Renard), *Ez da erraza gizon on bat aurkitzea* (Flannery O'Connor), *Jainkoa izan nahi zuen autobus-gidariaren istorioa eta beste batzuk* (Etgar Keret), edo *Tiger Lily; Heroi bat sortu da!* (Maeve Friel). Azken horrekin, Vitoria-Gasteiz haur eta gazte literaturako itzulpen saria jaso zuen 2014an.

Lorrik Gorriena haurrentzat idazten duen lehen ipuina da.

Itziar Otegi Aranburu (Oiartzun, 1972) es traductora-intérprete de profesión. Ha traducido diversas obras literarias para adultos y niños. Entre otros, *Axenario* (Jules Renard), *No es fácil encontrar un buen hombre* (Flannery O'Connor), *La historia del conductor de autobús que quería ser Dios y otras* (Etgar Keret), o *Tiger Lily: ¿se ha creado un héroe!* (Maeve Friel). Con este último, recibió en 2014 el premio de traducción de literatura infantil y juvenil Vitoria-Gasteiz.

Lorrik Gorriena es el primer cuento que escribe para público infantil.

Antolatzaileak: Etxepare saria Nafarroako 22 toki entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, antolatzen dute. Hona zerrenda:

- Agoizko Udala Ayuntamiento de Aóiz
- Antsoaingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin
- Atarrabiako Udala Ayuntamiento de Villava
- Barañaingo Udala Ayuntamiento de Barañáin
- Baztango Udala Ayuntamiento de Baztan
- Berribeitiako Udala Ayuntamiento de Berrioplano
- Berriozarko Udala Ayuntamiento de Berriozar
- Bortzirietako Euskara Mank. Mancom. de Euskera de Bortziriak
- Burlatako Udala Ayuntamiento de Burlada
- Esteribarko Udala Ayuntamiento de Esteribar
- Galar Zendeako Udala Ayuntamiento de Cendea de Galar
- Garesko Udala Ayuntamiento de Puente la Reina

Organizadores: El Premio Etxepare lo organizan 22 entidades locales de Navarra, a través de sus servicios de euskera. La relación de ellas es la siguiente:

- Irantzu Mankomunitatea Mancomunidad de Irantzu
- Iruñeko Udala Ayuntamiento de Pamplona
- Nafarroako Iparraldeko Euskara Mank. Mancom. de Euskera del Norte de Navarra
- Lizarrako Udala Ayuntamiento de Estella
- Malerrekako Mankomunitatea Mancomunidad de Malerreka
- Sakanako Mankomunitatea Mancomunidad de Sakana
- Tafallako Udala Ayuntamiento de Tafalla
- Uharteko Udala Ayuntamiento de Huarte
- Zaraitzu eta Eronkariko Batzorde Nagusiak Juntas Generales de Salazar y Roncal
- Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatua Patronato de Cultura del Ayuntamiento de Zizur Mayor



2020

etxeparesaria.eus



Laguntzaileak: Pamiela argitaletxea eta Galtzagorri elkarteak.

Babeslea: Nafarroako Gobernua – Euskarabidea.

Sariaren historia: Nafarroako 22 toki entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, Nafarroan literatura sari esanguratsu baten hutsunea zegoela ikusirik, eta, beraz, literatur lehiaketan alorrean erreferentzia izanzen saria sortzeko xedearekin, Etxepare sariak antolatu zituzten 2004an. Etxepare sariak haur, gazte eta helduentzako literatura saritu zuten bi ediziotan.

2006tik aurrera, Etxepare haurrentzako albumak sortzeko beka bihurtu zen, euskaraz sortutako albumen produkzioa sustatzeko helburuarekin. Izan ere, euskaraz argitaratzen diren album gehienak itzulpenak dira, eta ez euskaraz sortuak. Euskarazko album sorrera bultzatzen duen beka edo lehiaketak urriak dira, eta, alde horretatik, ekimen berritzailea dugu hau.

2009az gozotik Etxepare beka izateari utzi eta saria bilakatu da. Horiek horrela, lehiatuko diren albumak bukatuta aurkeztu beharko dituzte lehiakideek.

Bestalde, albumak dituen ezaugarriengatik garestia da bere produkzioa. Argitaratzeko zailtasun hori bihurtzen da, hain zuzen, albumak sortzeko oztopo nagusi. Beraz, Etxepare sariaren helburuak betetzeko ez da nahikoa saria ematearekin, lanak argitaratzen ere lagundu behar da. Horrela, saritutako lana Pamiela argitaletxe nafarrak argitaratzen du.

Colaboran: Editorial Pamiela y Galtzagorri Elkarteak.

Patrocina: Gobierno de Navarra – Instituto Navarro del Euskera.

Trayectoria del Premio: Un grupo de entidades locales de Navarra (22), a través de sus servicios de euskera, ante la inexistencia de un premio literario de cierta relevancia en euskera, y, por tanto, con el objetivo de crear un certamen que sirviera de referencia en el campo de los concursos literarios, crearon los premios literarios Etxepare en 2004. Estos premios, en sus dos primeras ediciones, galardonaron la literatura dirigida a niños y niñas, jóvenes y personas adultas.

A partir de 2006, Etxepare se convirtió en una beca para la creación de álbumes infantiles, con el objetivo de impulsar la producción de textos ilustrados creados en euskera, dado que la mayoría de los álbumes que se publican en euskera son traducciones. Son muy escasos las becas o concursos que impulsan la creación de álbumes en euskera, y, desde ese punto de vista, ésta es una actividad innovadora.

En el año 2009 Etxepare dejó de ser una beca para convertirse en premio, de forma que, actualmente, las obras se presentan en álbumes terminados.

Por otro lado, y debido a las características propias de los álbumes, su producción es cara. Esa característica para su publicación es lo que se convierte en el impedimento principal para crear álbumes. Por tanto, para lograr los objetivos del premio Etxepare, no es suficiente con dar el premio, también hay que impulsar la publicación de los trabajos. Así que, la editorial navarra Pamiela es la que publica la obra premiada.



2020



etxeparesaria.eus

Aurreko edizioetako saridunak:

Premiados y premiadas en ediciones anteriores:

Urtea/ Año	Lana/ Obra	Egileak/ Autores y autoras
2019	<i>Etxe honetan</i>	Aintzane Usandizaga & Asier Iturralde "Gaston"
2018	<i>Cosimoren katiuskak</i>	Dani Mariarena & Ana Ibáñez
2017	<i>Arraroa</i>	Ainara Azpiazu (Axi) & Paula Estévez
2016	<i>Zerua gris dago</i>	Liébana Goñi & Isaak Martínez
2015	<i>Munstroek ere pixa egiten dute ohean</i>	Pello Añorga & Jokin Mitxelena
2014	<i>Hiltzaileak</i>	Leire Salaberria
2013	<i>Gerrak ez du izenik</i>	Leire Bilbao & Maite Mutuberria
2011	<i>Hara!</i>	Miren Asiain
2010	<i>Euria ari duenean</i>	Leire Salaberria
2009	<i>Alex, nire laguna</i>	Mikel Gurrutxaga & Maite Gurrutxaga
2008	<i>Katalina kontalari</i>	Iñaki Zubeldia & Estibalitz Jalón
2007	<i>Zirkua amets</i>	Joxan Ormazabal & Iraia Okina

Irabazleekin harremanetan jartzeko:

Para contactar con las personas premiadas:

Sandra Garayoa Coteria – 690 83 13 51 – garayoasandra@gmail.com

Itziar Otegi Aranburu – 626 35 74 38 – otegi.itziar@gmail.com